05 / ACTO DE APERTURA OFICIAL DEL CURSO 2008-2009 EN MU

18 / GENTZANE ALDEKOA, NAZIOARTEKO HARREMANETA-RAKO SAILA



20 / GARABIDE: HEGO AMERIKAKO INDIGENAK EUSKAL HERRIAN

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2008ko udazkena | 10. zenbakia

## MUKIDE, PUNTO DE ENCUENTRO PARA ANTIGUOS ALUMNOS




GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Entitate laguntzailea
Entidad patrocinadora
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
2008 berrikuntza urtea euskadi innovation year
MONDRAGON UNIBERTSITATEA 10 URTE
zurekin, geroa lantzen

EROSKI

Erosten jakin

Musakola auzoa 11
ARRASATE
943 71 10 30
www.grupoeroski.es

KM
kulturunea

Koldo Mitxelena




KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto ikus:
www.gipuzkoa.net/kultura







KOLDO MITXELENA Kulturuneko Liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. www.gipuzkoakultura.net

## AURKIBIDEA

03 Editoriala
04-07 Berriak
08 Iritzia · Silbia Sarasola
09 Mendeberri
10-13 Erreportajea · Mukide
14 Erakundeak
15 GEP · Goi Eskola Politeknikoa
16 EZF · Enpresa Zientzien Fakultatea
17 HUHEZI · Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
18-19 Elkarrizketa · Gentzane Aldekoa
20-21 Erakundeak · Mundukide / Erakundeak · Garabide
22 Nazioarteratzea
23 Doktore tesiak
24 MU kirol zerbitzua
25 Bisitak
26 Agenda

# ASMO BERRIAK

Ireki da ikasturte berria ekitaldi ofizialean. Beste behin, Arrasateko Amaia Antzokia Mondragon Unibertsitatearen asmo berrien lekuko isila bilakatu da. Hezkuntza metodologia berriak, web 2.0 eta etorkizuna, izan dira hizpide. Hezkuntzaren hizkuntza aldatu beharra dago, digital bilakatu behar da. Argi dauka MUk, eta horren aldeko apustua egin du Iosu Zabala errektoreak bere agerpenean. Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak eta Hezkuntza Saileko ordezkariek ere esku hartu dute irekiera ekitaldian. MUniversitas aldizkariaren hamargarren zenbaki honetan beste zenbait asmo berri ere jaso ditugu. Esaterako, Nazioarteko Harremanen Departamentuak abian jarri nahi dituenak. Ikasleen nazioarteratzea eta atzerritarrentzat eskaintza hobetzea. Horiexek dira Gentzane Aldekoak zuzentzen duen departamenduaren asmo nagusiak. Nazioartean ondo kokatu beharra du MUk, eta horretarako garrantzitsua da nazioarteko ikasleak gurera erakartzea, eta aldi berean, hemengoak kanpoko unibertsitateetara bidaltzea. Ezagutza konpartitu beharra dago, beste batzuen esperientziaz janztea ona da, eta hori nahi du Kanpo Harremanetarako Departamentuak. Orain arte, Erasmus egitasmoaren eskutik etorritako ikasle atzerritarrak gustura egon dira gure artean. Mondragon Unibertsitateak gertuko tratua eskaintzen die, erabat pertsonalizatua, enpresa esperientzian oinarritutako beste hezkuntza errealitate bat ezagutzeko aukerarekin. Baina ez dira horiek asmo berri bakarrak. Horren haritik, MUk eta Ikerbasque erakundeak akordioa sinatu dute. Inportantea da unibertsitatearentzat hitzarmena. Izan ere, ikerlari ospetsuak etorriko dira gurera, euren ezagutza gurekin konpartitzera.

Oso bestelako egitasmo bat ere jarri du abian Mondragon Unibertsitateak, ikasle ohien elkartea sortu du, MUkide izenekoa. Mondragon Unibertsitatean ikasitakoen elkartea izango da, eta dagoeneko ikasle ohi ugarik erakutsi du bertan parte hartzeko interesa. Susana Azpilikuetak dihardu, besteak beste, elkarte berriaren planifikazioan eta antolakuntzan, eta hari eginiko elkarrizketa ere jaso dugu esku artean duzun aldizkarian. Ikasle ohiek abantailak izango dituzte MUkiden, ikasle garaiko harremanak mantentzeko aukera izango dute, eta, gainera, eurei zuzenduriko egitasmoetan parte hartzeko parada izango dute. Mondragon Unibertsitateak asmo berriekin abiatu du 2008-2009 ikasturtea. Asmoak errealitate bilkatzeko irrikitan eta lan egiteko gogoz. Zorte on guztiok ikasturte berrian.

*“Ezagutza konpartitu beharra dago, beste batzuen esperientziaz janztea ona da, eta hori nahi du Kanpo Harremanetarako Departamentuak”*

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**
**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu
**Koordinatzailea** Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Joxe Aranzabal, Mila Arregi, Susana Azpilikueta eta Idoia Peñakoba
**Laguntzaileak** Gentzane Aldekoa,Txema Egaña, Ivan Gallego, Xanti Isasmendi, Aitor Lizartza, Sain López, Jose Mari Luzarraga, Xabier Sagarna, Silbia Sarasola, Aitziber Vicens
**Tirada** 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Josetxo Aranzabal | **Moldiztegia** Gertu (Oñati)

## NAFARROAKO GOBERNUKO ORDEZKARIA MU-N

Nafarroako Hezkuntza sailburuaren bisita jaso berri du Mondragon Unibertsitateak. Zehazki, Nafarroako Hezkuntza Saileko lau ordezkari eta "Cuatrovientos Institutuko" zuzendaria eta beste bi ordezkari izan dira MUn.

Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza eredua gertutik ezagutzea eta elkarlanerako esparruak jorratzea izan dira bisitaren helburuak. Mondragon Unibertsitatea eta Cuatrovientos Institutua elkarlanean aritu izan dira azken hilabeteotan, Nafarroan ziklo formatiboak euskaraz eskaintzeko aukera aztertuz.

Unibertsitateaz gain, Mondragon Korporazioa eta Ikerlan ere bisitatu dituzte.

## DEREK JONES EN LA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

Derek Jones, reconocido investigador en el campo del análisis económico de empresas cooperativas y de otras caracterizadas por la participación de trabajadores en el capital, va a pasar buena parte del curso 2008-2009 en la Facultad de Ciencias Empresariales de Mondragon Unibertsitatea.

Su presencia en Mondragon Unibertsitatea se enmarca dentro de la iniciativa impulsada por Mondragon Cooperative Academic Community, MCAC, para atraer conocimiento de expertos en distintas materias. El objetivo es compartir conocimiento con importantes investigadores del panorama internacional.

Derek Jones ha recibido una beca de Ikerbasque Fellowship a través de la iniciativa Ikerbasque para colaborar con Mondragon Unibertsitatea, más concretamente con la facultad ubicada en Oñati, liderando un estudio con un equipo de cinco personas de la Facultad de Ciencias Empresariales. El objetivo de éstos, es analizar los resultados económicos del Grupo Eroski en todo el estado español.

Esta beca es una de las diez que anualmente otorga el Gobierno Vasco a investigadores internacionales de alto nivel. Gracias a este tipo de actuaciones, becas, Mondragon Unibertsitatea también recibirá la incorporación de otro prestigioso investigador.

## READY TO GO, XXI. MENDEKO WORKSHOP

*Ready To Go* saioan, partehartzaileek beraien negoziora zuzenduriko soluzio zehatzenak aurki ahal izango dituzte. Horretarako, metodologi berritzaile eta iraultzailea erabiliko dute, non partehartzaileak motibatzen dituzten, saioan ikasitakoa egunerokotasunean aplikatzen.

*Ready To Go*, soluzio zehatzak behar dituzten enpresei zuzendurik dago. *Ready To Go* saioan, enpresarekin erlazionaturiko edozein arazo mota nola aztertu erakusten da.

Pep Torres eta Stereonoisek, bere asmakuntza eta kreatibitate estudioak, jardunaldi intentsibo hau izenpetu eta zuzentzen dute. Pep Torres eta bere taldeak mundu mailan negozio, tendentzia eta berrikuntza zein kreatibitatearen inguruan gertatzen ari denaren ikuspegi zehatz eta sakona dute.

*Ready To Go* ikastaroa urriaren 8an egin zen Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

BERRIAK

## TITULAZIO BERRIAK ESKURA

Hasi dira eskolak Mondragon Unibertsitatean. Aurtengo berrikuntzen artean, aipatzekoa da Europako Eremura egokitu diren lehen 6 gradu titulazioei eman zaiela hasiera Euskadin: bost Ingeniaritzaren alorrekoak dira, eta beste bat Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzaren alorrekoa.

Horrela, Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitutako eskaintza akademikoa duen Euskal Herriko lehen unibertsitatea da MU. Ezaugarri horrek, Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzailea eta aitzindaria uzten du agerian, zazpi urte baino gehiago baitaramatza Mendeberri proiektua izeneko hezkuntza-eredua jorratzen. Aipatutako proiektuak erabat betetzen ditu eremu berriaren helburuak.

Izan ere, Unibertsitateak oraingo ikasturtetik aurrera eskainiko duen irakaskuntza egokituak ohiko irakaskuntzarekin alderatuta oso eredu desberdina du. Ereduaren azken helburua da ikasleak gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalean trebatu, lanarloaren erronka berriei aurre egiteko. Horrela, hezkuntzaren ardura bereganatzeko, taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gauza izango diren pertsonak heziko dira.

### MATRIKULAZIO KOPURUA

Aipatutako gradu-tituluetan 330 ikasle inguru matrikulatu dira. Ikasle horiek aukera paregabea dute europar esparruan murgiltzeko, prestakuntzaren tren europarrean bidaiatzeko, eremu horretara egokitutako lehen promozioko kideak izango baitira. Hori guztia egiteko, aukeraz baliatuko diren eta Europako betebeharretara egokitutako tituluak lortuko dituzten Euskal Herriko lehen ikasleak izango dira.

Gainera, irailean, Mondragon Unibertsitateko gainerako titulazioetan matrikulatutako beste 560 ikasle berri hasiko dira. Titulazio horiek, oraindik gradu bihurtu ez diren arren, Mendeberri hezkuntza-ereduari jarraituko zaizkio, harian-harian ezarri baita azken urteotan.

# MU REIVINDICÓ LA UNIVERSIDAD 2.0 EN LA APERTURA DEL CURSO 2008-2009



ARGAZKIA: MU

**PRESENCIA INSTITUCIONAL**
Entre otros, tomaron parte en el acto, el Lehendakari Juan José Ibarretxe, el Consejero de Educación, Tontxu Campos y el Diputado General de Gipuzkoa, Markel Olano.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA CELEBRÓ LA INAUGURACIÓN DEL NUEVO CURSO 2008-09, MARCADO POR SU ADAPTACIÓN AL ESPACIO EUROPEO DE EDUCACIÓN SUPERIOR, EN UN ACTO OFICIAL QUE TUVO LUGAR EN EL TEATRO AMAIA DE MONDRAGON.

El presidente de MU, Javier Sotil, hizo especial hincapié en la estrecha vinculación entre el Espacio Europeo de Enseñanza Superior y el modelo de reingeniería educativa de la universidad. Asimismo, la actividad de I + D basada principalmente en la importancia de su aplicabilidad, las actuaciones desarrolladas en torno al emprendizaje y el diseño de nuevas titulaciones adaptadas a Bolonia, formaron parte de su discurso.

La lección inaugural corrió a cargo del profesor Dr. David Sánchez, de la Facultad de Ciencias Empresariales, quien ofreció una conferencia sobre la Web2.0, titulada 'Empresa 2.0: más allá de los átomos y los bits'.

Por su parte, el Rector Iosu Zabala destacó los retos recogidos en el Plan Estratégico 2008-2012, que la universidad está elaborando: el nuevo reto pedagógico, donde el objetivo es incorporar a Mendeberri las posibilidades que ofrece el mundo de la web 2.0, y la formación a lo largo de la vida, con el objetivo de desarrollar e implantar una oferta de aprendizaje permanente on-line.

**DANBAKA III. EDIZIOA**
Idoia Peñacoba (MU), Mikel Irizar (Kutxa), Samu Gorrotxategi (Espaloia) eta Iker Barandiaran (Goiena), Elgetan eginiko aurkezpen prentsaurrekoan.




ARGAZKIA: ARTEMAN

## DANBAKA LEHIAKETAREN BABESLE

MUk Goienak antolatzen duen DANBAKA musika lehiaketa babestuko du. Sortu zenetik, MUk laguntza eskaini dio musika lehiaketari, eta are gehiago aurtengo edizioan, non Debagoieneko gazteez gain, Debabarrena eta Durangaldeko musika taldeek ere parte hartuko duten. Lehiaketaren aurkezpena Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egin zen, eta bertan parte hartu zuen Idoia Peñakobak, MUren izenean.

## IKASLE ETA IKERLARIEN MUGIKORTASUNA BULTZATUKO DA

MUren Goi Eskola Politeknikoak lankidetza hitzarmena sinatu du Mexikoko Coacalcoko Tecnológico de Estudios Superiores zentroarekin. Nazioarteko harremanak sendotu eta areagotu nahi ditu MUk, eta helburu horrekin sinatu da akordioa.

Uztailaren 9an, Francisco José Plata Olvera doktoreak, Coacalcoko Tecnólogico de Estudios Superioreseko zentroko zuzendariak, GEPera bisita egin zuen bi erakundeen arteko elkarlan hitzarmena sinatzeko. Hain justu ere, bi erakundeek ikasle eta ikertzaileen mugikortasuna areagotzeko neurriak hartu nahi dituzte.

Irailean hasi da bi zentroen arteko lankidetza. Besteak beste, irailean Goi Eskola Politeknikoan egonaldia egin du Coacalco-ko ikerlari den Alfredo Hernandezek. Goi Eskolako Materialen Konformaziorako Prozesu Aurreratuen sailean aritu da lanean.

## AUKERATU DUTE MUKIDE ELKARTEAREN IRUDIA

MUkide, Mondragon Unibertsitatearen Ikasle Ohien elkarteko irudia aukeratzeko lehiaketa egin berri da. Eta aurkeztu diren 17 diseinuetatik, Aarón Busca Izquierdorena aukeratu dute. Aarón, oñatiarra da eta egun Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egiten dihardu Mondragon Unibertsitatean.

Epaimahaia, MUkide elkarteko 5 kidek, eta komunikazio zein diseinuaren esparruan aditua den pertsona batek osatu dute. Irabazleak, aurreikusita zegoen saria eskuratu du lehiaketaren antolatzaileen eskutik, Nintendoren Wii bat, Wii Sports jokoa barne.

BERRIAK

# MU E IKERBASQUE FIRMAN UN ACUERDO ORIENTADO AL IMPULSO DE LA INVESTIGACIÓN

**AKORDIO INPORTANTEA**
Mondragon Unibertsitateak eta Ikerbasque erakundeak sinatutako akordioari esker, nazioarteko ikerlari ospetsuak MUra etorriko dira.




ARGAZKIA: ARTEMAN

GRACIAS AL ACUERDO ALCANZADO ENTRE IKERBASQUE Y MONDRAGON UNIBERTSITATEA, DOS INVESTIGADORES DE RECONOCIDA LABOR INTERNACIONAL, RECALARÁN EN MU DURANTE ESTE CURSO 2008-2009. UNO EN LA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES Y EL OTRO EN LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR.

La Fundación Ikerbasque es una entidad cuyo objeto consiste en contribuir al impulso, promoción y desarrollo de la investigación y del conocimiento científico, humanístico y tecnológico, facilitando la progresiva consolidación del colectivo de investigadores y científicos en el País Vasco.

A través de esta colaboración con Mondragon Unibertsitatea, Ikerbasque contribuirá a la promoción y desarrollo de la investigación en beneficio de la universidad, mediante la contratación de investigadores, con objeto de que desarrollen su actividad laboral en el ámbito de Mondragon Unibertsitatea.

Así, y fruto de este acuerdo alcanzado entre MU e Ikerbasque, durante el curso 2008-09 serán dos investigadores extranjeros que se incorporarán a la actividad investigadora de MU: el profesor Dr. Derek Jones, procedente del Davidson Institute - “University of Michigan”- y que desempeñará su labor en la Facultad de Ciencias Empresariales de Oñati, en el ámbito del cooperativismo, y el profesor Dr. Abdel Fattah Zebib, de “Mechanical and Aerospace Engineering, Rutgers University”, que previsiblemente se incorporará al equipo investigador de la Escuela Politécnica Superior en enero de 2009, concretamente al ámbito de la mecánica de fluídos.

Este convenio permitirá a Mondragon Unibertsitatea seguir potenciando su actividad investigadora y reforzando sus equipos de investigación en las diferentes áreas de especialización.

# MONDRAGON UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKAK WEBGUNE BERRIA DU

MUKO BIBLIOTEKAK ERABAT BERRITU DU BERE WEBGUNEA. ORAINGOA OSO ONDO DAGO TXERTATUTA MU-REN WEBGUNEAN, ETA GORDETZEN DITU HAREN IRUDI KORPORATIBOA ETA ANTOLAKETA. ERRAZAGOA DA IRISTEKO, ARGIAGOA EDUKIAK AZALTZEN, ETA SINPLEAGOA EDUKIAK ETA ZERBITZUAK AURKITZEKO.

Berrikuntza asko ditu webgune berriak, esate baterako aplikazio bat zenbait material erreserbatzeko, hala nola ordenagailuak, taldelan gelak, ordenagailu eramangarriak eta bideo kamerak. Horrekin batera, informazio baliabide gehiago eskaintzen ditu (Source Elite datu-basea, Elsevierren liburu elektronikoen Referex bilduma), eta baita eduki eta atal berriak ere: gomendatutako bibliografia, bibliografia idazteko arauak eta inpaktu-adierazleak, besteak beste.




Mondragon Unibertsitateko bibliotekaren eginkizuna da informazio baliabideak eskuratu eta hedatzea, eta laguntzea hiru esparrutan: irakaskuntzan, ikaskuntzan eta ikerkuntzan.

Informazio gehiago aurkitu ahal izango da honako webgunean: *http://www.mondragon.edu/biblioteka*

**RENOVADA LA WEB DE LA BIBLIOTECA**
La biblioteca de Mondragon Unibertsitatea ha renovado su sitio web. Está ubicado en el sitio web de la universidad y mantiene la estética de la misma. Ágil, sencilla y fácil de utilizar. Estas son las características de la web.

## GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKASLEEK SARIA JASO DUTE EUSKAL ENCOUNTER 2008 TOPAKETAN

DAGOENEKO IGARO DIRA HILABETE BATZUK EUSKAL ENCOUNTER TOPAKETA EGIN ZENETIK BILBON. BAINA, GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO ZENBAIT IKASLEK ORAINDIK EZ DUTE AHAZTU. IZAN ERE, MU-KO LAU IKASLEK SARI POLITA JASO ZUTEN BEC-EN EGINDAKO HAMASEIGARREN EDIZIOAN.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko informatika eta elektronikako ikasleek osatutako WILLIX taldeak irabazi zuen saria Euskal Encounter 2008 edizioan. Mondragon Unibertsitateko taldea osatu zuten Jon Goenetxeak, Igor Ibargurenek, Unai Elordik eta Unai Zabartek.

Gure unibertsitateko ikasleek pozik egoteko arrazoiak badituzte. Izan ere, software askean programazio bizkorreko Free and Open Source Software lehiaketa irabazi zuten. Saria, berriz, Asus EEE-PC ordenagailu ultra eramangarria izan zen. Sariketaren babesle den Entel enpresak emandakoa, hain zuzen ere.

Euskal Encounter egitasmoa ordenagailu zale eta profesionalen bilgune zabala izaten da, non esperientziak elkarbanatzen dituzten. Gainera, egitasmoak irauten duen egunetan informatikarekin loturik dauden ekintza ezberdinetan murgiltzeko aukera izaten dute parte hartzaileek.

### ESTATUKO PARTYRIK BETERANOENA

Estatuko informatika elkarretaratzerik beteranoena da Euskal Encounter. Eta, urtez urte, arrakasta handiagoa du. Arestian aipatu bezala, aurtengo edizioa hamaseigarrena izan zen, eta guztira ia sei mila lagunek parte hartu zuten.

Euskal Encounter bilkura Bilbao Exhibition Centren egin zen uztailaren 24tik 27ra. Azpiegiturari dagokionez, 4.096 ordenagailu sarean konektatuta izan zituzten parte hartzaileek. Era berean, 8 Gb/s-ko Internet konexioarekin gozatzeko aukera izan zuten. Gure ibarreko ikasle eta pertsona asko gerturatu zen Bilbora, horien artean asko MUko ikasleak.

Guztira, Bilboko BECen 35.000 metro koadro baino gehiagoko espazioa egokitu zuten Euskal Encounter biltzarra egiteko. Lau egunean informatika zaleek asko disfrutatzeko aukera izan zuten. Sariak, berriz, askotarikoak izan ziren, eta antoltzaileek 50.000 euro banatu zituzten. Dagoeneko antolatzaileak hamazazpigarren edizioan pentsatzen ari dira, eta ziur asko, hurrengoa ere berrikuntzez beterik etorriko da.

# EL VALOR AÑADIDO DE MU EN LA INTERNACIONALIZACIÓN DEL PROFESORADO



La internacionalización del profesorado es uno de los retos más importantes de Mondragon Unibertsitatea. En Mondragon Unibertsitatea hemos dado, en los últimos años, pasos importantes en esta dirección y actualmente podemos decir que la internacionalización constituye un hecho, y se ha dado en ámbitos tales como los estudios de grado y postgrado, la actividad investigadora mediante la colaboración con otras universidades y entidades, mediante proyectos y programas conjuntos, así como la colaboración con empresas y cooperativas implantadas en el extranjero.

Dado que la comunidad docente constituye uno de los pilares de la actividad universitaria, la internacionalización de la actividad universitaria pasa necesariamente por la proyección exterior de nuestro profesorado.

El proyecto educativo de Mondragon Unibertsitatea incluye la movilidad de su profesorado no sólo para su desarrollo personal y profesional, sino también para mejorar la calidad de la actividad docente. La innovación metodológica exige aprender de modelos educativos extranjeros, donde se aplican metodologías más participativas que las tradicionales y realizan un esfuerzo especial para garantizar la capacitación plurilingüe de nuestro profesorado.

Además, también a nivel profesional, la creación de una red de contactos internacionales mediante el intercambio de profesores, es un requisito *sine qua non* para nuestras universidades.

*“La innovación metodológica exige aprender de modelos educativos extranjeros, donde se aplican metodologías más participativas”*



**Silbia Sarasola**
Nazioarteko harremanetarako arduraduna

La universidad, por definición tiene vocación universal e internacional y la movilidad del profesorado constituye, a día de hoy, una realidad consolidada que goza de un apoyo institucional cada vez más importante. Sin embargo, y sin obviar el interés y la necesidad de promover esta movilidad que cabe predicar con carácter general, en Mondragon Unibertsitatea la movilidad del profesorado posee un valor añadido que merece destacar en este momento. Mondragon Unibertsitatea, que fue creada en 1997, constituye una universidad joven e innovadora en su propia organización y actividad. En efecto, la novedad reside en que, más allá de la implantación de un modelo educativo propio y participativo de la mano del proyecto Mendeberri, la propia forma jurídica y organización de la universidad como entidad cooperativa y con ello la pertenencia a Mondragon *Humanity at Work*, constituye uno de los aspectos que más interés suscita fuera de nuestras fronteras y, por ende, un diferencial que nos permite situarnos en una posición interesante en un mercado- el universitario- cada vez más competitivo y complejo.

# GRADU IKASTAROA ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN, EUROPARA EGOKITUA



ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAK GRADU IKASTARO BAT HASI DU ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN, ETA EUROPARA EGOKITUA

Titulu berriaren ardatza izango da ezagutzan baino gehiago konpetentzietan oinarritutako hezkuntza lantzea. Gradu berriak lau urteko iraupena izango du, ikasleek enpresa kudeaketaren inguruko gaiak landuko dituztelarik. Espezializazioa urte bateko iraupeneko masterrean egin ahal izango da. Graduatuak aditu baten izaera lortzen du, pertsona praktikoa da, trebezia argiak ditu, bere alorrean esperientzia du, kudeaketaren esparruko arazoei irtenbidea emateko irizpide profesionalak erabiltzeko gai da eta tresna teknikoak erabiltzeko gaitasuna du. Mundu globalizatua eta eleaniztunean lan egiteko prestatuta daude euskara, gaztelania eta ingelesa landuz.

## PRESTAKUNTZA INTEGRALA LORTZEKO HELBURUA

Titulazioan zehar konpetentzia teknikoez gain, ikasleak zeharkako ahalmenak garatzen ditu, besteak beste, talde lana, arazoak konpontzea, ikasten ikastea, lidergoa, etab., prestakuntza integrala lortzeko helburuarekin.

Guzti hori bermatzeko, Enpresa Zientzien Fakultateak hezkuntza eredu propioa garatu du Mendeberri proiektuaren eskutik, azken zortzi urteotan. Horren arabera, ikaste-irakaste prozesuan metodologia berritzaileak erabiltzen dira, esaterako arazoetan eta proiektuetan oinarritutako irakaskuntzak, kasuen metodologia, talde lana, etab.

Eskuratzen dituzten ezagutza, trebezia, ahalmen eta balioek, mundu profesionalean modu arrakastatsuan lan egiteko aukera eskainiko diete ikasleei.

Ikaslea konpetentzietan eta modu jarraian ebaluatuko da. Horrek irakasle eta ikasleen rolen eta funtzioen aldaketa suposatzen du: ikaslea protagonista eta irakaslea laguntzailea.

Titulazioaren azken seihilekoan Gradu Amaierako Proiektua egingo da enpresa, erakunde zein unibertsitatean. Ikasleek proiektua egiteko aukera izango dute, lan mundura hurbildu eta esperientzia erreala eskuratuz.

## GOI ESKOLA POLITEKNIKOA: BERRIKUNTZA INGENIARITZAKO IKASKETETAN

Irailaren 8an, Arrasate eta Ordiziako campusetan, Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura egokitutako titulu berriak hasi ziren. Egokitzapenak zenbait aldaketa ekarri ditu Ingeniaritzako ikasketetan, eta horrek ekarri du azken urteotako transformaziorik handiena.

Hezkuntza eredu horren ardatz nagusienak honakoak dira:

**Mugikortasuna.-** Erasmus eta beste nazioarteko mugikortasun programen barruan ikasleen %90 nazioarteratzea nahi da.

**Eleaniztasuna.-** Ikasleek hiru hizkuntzatan lan eta ikasteko gaitasuna sustatu behar dute. Klase magistralak, ariketak, praktikak eta proiektuak euskaraz (%60), gaztelaniaz (%20) zein ingelesez (%20) izango dira. Graduondoko ikasketetan, berriz, hizkuntza eremuak diseinatzen diren masterraren izaerari erantzungo die.

**Lan-Ikaste alternantzia.-** Eredu berriak bultzatu nahi du ikasleen lan esperientzia, antolakuntza akademikoan txertatuz lan konpetentziak ebaluatuta.

**Ikasketa prozesua.-** Ikasketen oinarria ikasleak jaso behar dituen konpetentziak dira. Ikasgaiak konpetentzia horiek lortzeko tresnak bilakatzen dira. konpetentzia teknikoez gain zeharkako konpetentziak lantzen dira metodologia berritzaileak erabiliz.

**Ebaluaketa jarraia eta globala.-** Konpetentziak ebaluatzerako orduan seihilekoetan egiten den guztia kontutan hartzen da.

# MUKIDE,UN PUNTO DE ENCUENTRO PARA LOS ANTIGUOS ALUMNOS

## LA ASOCIACIÓN MUKIDE PRETENDE DAR RESPUESTA A LAS NECESIDADES DE LOS ANTIGUOS ALUMNOS, ASÍ COMO CREAR UNA RED DE COMUNICACIÓN Y DE SERVICIOS PARA LOS MISMOS. EN POCO MÁS DE UN MES, MUKIDE HA RECIBIDO UN CENTENAR DE PETICIONES PARA PARTICIPAR EN LA ASOCIACIÓN.




**PROMOCIONES HISTÓRICAS**
Primera y segunda promoción de la Escuela Profesional de Mondragon, donde están los que más tarde fueron impulsores de ULGOR.

El grupo de trabajo -compuesto por representantes de las tres facultades y el Rectorado-, que durante los últimos meses ha estado trabajando en el diseño y creación del proyecto MUkide, ha recibido con agrado el interés que ha creado la Asociación de Antiguos Alumnos MUkide. Mondragon Unibertsitatea cuenta con 8.811 antiguos alumnos, de los cuales 6.000 han cursado sus carreras universitarias desde que se creó MU hace once años, y el resto son de la época anterior.

La asociación tiene como objetivo mantener la relación de los antiguos alumnos con la universidad, y crear redes y foros de participación que funcionen como canales de comunicación entre los que fueron compañeros de estudios, así como entre ex alumnos de distintas promociones. Además, se pretende definir espacios de colaboración con el alumnado actual, colaborando con el desarrollo de la universidad y del entorno, respetando siempre los valores de la universidad: cooperación, innovación, participación, responsabilidad social y desarrollo personal para el cambio social y aportando valor añadido a los miembros de esta asociación.

### TRABAJO PREVIO

Los miembros del grupo de trabajo han analizado varios foros de antiguos alumnos antes de crear MUkide. Entre otros, se ha valorado el trabajo que realizan la Asociación Alumni de la Universidad de Navarra, la Asociación de la Universidad Pública de Valencia, la de la Escuela Superior de Ingeniería de Sevilla o la de la Escuela de Armería de Eibar. “Hemos realizado un estudio previo y nos hemos fijado en el funcionamiento y en los




servicios que ofrecen otras asociaciones de parecidas características. Ahora queremos poner en marcha nuestra asociación con la mejor oferta posible" asegura Susana Azpilikueta, coordinadora del grupo.

De momento, y como punto de partida, se está realizando una base de datos con todos aquellos antiguos alumnos que deseen pertenecer a la asociación. Para ello, se ha habilitado una dirección de correo electrónico, *MUkide@mondragon.edu*, donde se puede solicitar toda la información sobre la asociación. Asimismo, a través de la página *www.mondragon.edu/mukide-1/mukide* se puede realizar la inscripción en la misma. "Muchos ex-alumnos se han puesto en contacto con nosotros, y nuestro objetivo para el curso 2008-09 es que el %50 de los estudiantes que hayan terminado sus estudios en 2008, se inscriba en la asociación. Además, queremos atraer, por lo menos, a otros quinientos alumnos de promociones anteriores".

## CHARLAS, AYUDAS, DEPORTES Y OTROS SERVICIOS

Susana Azpilikueta nos habla de los servicios que quieren ofrecer desde el foro de antiguos alumnos. "Entre los servicios que queremos poner en marcha estarán las charlas que se organicen en todas las facultades, de interés general en algunos casos ,y exclusivo para los antiguos alumnos en otros. La posibilidad de utilización del servicio de préstamo bibliotecario o sus instalaciones. Las visitas guiadas a empresas. Además, queremos que los asociados dispongan de descuentos en diversos servicios . Queremos que los miembros de MUkide dispongan de facilidades para acceder a cursos de formación continua o en viajes que organicen los distintos servicios universitarios,



→ y también en algunas tiendas, servicios turísticos, etc. Queremos disponer de una tarjeta que aporte ventajas al socio de MUkide".

De momento, el comité que está impulsando el proyecto ya ha dado pasos importantes en todos esos ámbitos, y este curso 2008-09 será el de la puesta en marcha de la asociación. Se abrirá el sitio web de MUkide y se realizará la primera oferta de actividades. "El sitio web canalizará toda la información de la asociación y pronto estará en la red." Además, entre los objetivos de MUkide para este curso está el acto de presentación, la organización de actividades deportivas, el diseño de la oferta de formación, charlas, conferencias...

## PARTICIPACIÓN GRATUÍTA PARA LOS ANTIGUOS ALUMNOS

Por último, cabe resaltar que se considerará como antiguo alumno de Mondragon Unibertsitatea a todo aquel que haya cursado su carrera universitaria en cualquiera de las tres facultades de MU, desde su creación. Así como a aquellos que en su día cursaron su carrera universitaria en Eskola, ETEO o en Irakasle Eskola, previa a la constitución de la universidad.

Aquellas personas que han cursado masters, postgrados o títulos experto en la universidad también serán considerados como antiguos alumnos. "Las puertas de la asociación están abiertas a todos. La participación será gratuita, y cuantos más antiguos alumnos nos reunamos, más cosas podremos hacer y organizar". Ese es el objetivo de los impulsores ahora: crear interés entre los antiguos alumnos, e incrementar el número de asociados.

# UNIBERTSITATEAREKIN HARREMANA MANTENTZEN JARRAITU GURA DUT

Irailaren hasieran aurkeztu nuen nire karrera amaierako proiektua, eta esan daiteke titulatu berria naizela. Informatika Kudeaketa Ingeniaritza Teknikoa ikasi nuen Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean, eta azken bi urteotan Ingeniaritza Informatikoa ikasten jardun dut Mondragon Goi Eskola Politeknikoan.

Karrera amaierako proiektua, berriz, Fagor Industrial enpresan egin dut. Gainera, azken bi urte hauetan lana eta ikasketak uztartu ditut, egun erdiz Fagor Industrialen lan egiten bainuen. Esan dezaket, inolako zalantzarik gabe, esperientzia oso aberasgarria izan dela.

Orain, berriz, Ulma Handlying System enpresan hasi berria naiz lanean. Hilabete eta erdi daramat enpresa berrian, eta Kudeaketa Informatikako Departamentuan nago. Hasi berria naiz, eta printzipioz oso gustura dihardut lanean, eginbeharra interesgarria da, eta lan talde politarekin aurkitu naiz.

**MUKIDE elkarteko kide**

MUkide elkarteko kide izatera animatu nauen arrazoietako bat izan da Mondragon Unibertsitatearekin harremana mantendu nahi dudala. Orain arteko lagunak, egitasmoak, proiektuak, ikasketa prozesu guztia ez dut ahaztu nahi, eta harreman hori mantentzeko uste dut oso aproposa dela MUkide. Badakit dagoeneko ikasle ohi askoren deiak jaso dituztela MUkide bultzatzen dihardutenek, badakit gauza asko egiteko asmoa dutela. Egitasmo ugari jarriko dituztela abian, eta horietan parte hartzeko asmoa dut. Interesgarria da ikasle ohiei aukera gehiago irekitzen zaizkigulako, eta guztion artean unibertsitate indartsuago bat egingo dugulako.

MUkidek eskainiko dituen komunikazio kanalak, ikasle-ohi eta gaur egungo Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasleekin, oso aberasagarria izango dela uste dut, elkarren arteko lankidetza eta ezagutza uztartzeko balioko duelako MUkidek.

Sare honek esperientzia ezberdinak elkarbanatzen lagunduko digu. Elkarrekin proiektuak abian jartzeko bidea eta kanala izango da.

Beste unibertsitate askotan ere ikasle ohien arteko foroak sortzen dira, eta nik uste dut, gaur egun edozein unibertsitatetan beharrezkoa dela hori, ikasle ohi eta unibertsitatearen artean kontaktua ez galtzeko, batez ere. Azkenean, unibertsitatean ikasitako guztia eta izandako bizipen guztiak hor ditugun arren, garrantzitsua da egunean egotea bai unibertsitatearekin eta ikasle ohiekin.

Horiexek dira nire arrazoiak MUkideko partaide izateko. Bakoitzak izango du bere arrazoia, bere motibazioa, bere asmo eta gogoa, baina uste dut guztiontzat dela interesgarria ikasle ohien elkarte indartsu bat. Nire apustua bada, eta espero dut beste askok ere jarraitzea bide hau. Zorionak MUkide bultzatzen ari zaretenoi. Ni bidelagun izango nauzue zuen ahaleginean.

*“Orain arteko lagunak, egitasmoak, proiektuak, ikasketa prozesu guztia ez dut ahaztu nahi, eta harreman hori mantentzeko uste dut oso aproposa dela MUkide”*



**Amaia Alcelay**
Ingenieritza Informatikoa
23 urte



IRUDIA: LORENA MARTINEZ

**PARTE HARTZEA DOAKOA**
MUkide elkarteko kide izan nahi dutenek ez dute ezer ordaindu beharko. Interesa izanez gero, MUkidek abian jarriko duen webgunean izena eman beharko da.

## ALECOP

# ALTERNAR ESTUDIO Y TRABAJO PARA ADQUIRIR EXPERIENCIA LABORAL

ALECOP SIEMPRE HA SIDO UNA EXPERIENCIA ÚNICA, EN SU INICIO POR SER UNA COOPERÁTIVA DE ESCOLARES, Y AHORA, POR APORTARLES EXPERIENCIA LABORAL

Hoy día Alecop aporta experiencia laboral de forma estructurada, mediante su desarrollo en competencias de acción profesional –saber, saber hacer, saber estar y saber ser- de carácter general-personal (competencias transversales).

Nuestra misión, como cooperativa de Mondragon y en nuestro entorno social es, y así lo dice el artículo 2º de nuestros estatutos sociales, desarrollar nuestra actividad empresarial "en el empeño del adiestramiento profesional, empresarial y de cobertura de las necesidades económicas de los socios colaboradores escolares, tratando de lograr un desenvolvimiento altamente productivo y expansivo para aplicar sus beneficios al mayor número de alumnos comprometidos en una promoción autofinanciada con el propio trabajo".

Hoy en día, destacamos ese adiestramiento profesional que realizamos, mediante un proceso laboral denominado ATEKO, que se aplica para el desarrollo, seguimiento, evaluación y certificación de 7 competencias transversales: trabajo en equipo, toma de decisiones, visión global del trabajo, implicación en el trabajo, información y comunicación, planificación y organización del trabajo y pensamiento orientado a la resolución de problemas; pero que lleva implícito el desarrollo de otras competencias como: aprender a aprender, innovación, emprendedurismo,…Y también les aporta organización y planificación del tiempo en sus estudios, participación en la experiencia cooperativa, anticipos laborales y retornos, desarrollo personal en comunicación, cooperación, autonomía.

El mundo empresarial está demandando personas con este tipo de competencias, que únicamente se adquieren en el desempeño laboral, y es precisamente por ello, que nuestros socios-escolares, al finalizar sus estudios, parten con una experiencia profesional que les aporta una ventaja competitiva a la hora de acceder a un puesto de trabajo.

**ALECOP, ETORKIZUNERA BEGIRA**
Enpresa arloa ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen die Alecopek Mondragon Unibertsitateko ikasleei. Lan antolakuntzan, berrikuntzan, kooperatibaren ezagutzan eta komunikazioan heziketa eskaintzen die Alecopek.



# UN PROFESOR DE LA EPS, FINALISTA DE LA MEDALLA TAYLOR 2008

**TAYLOR SARIA**
Ivan Gallego irakasle eta ikerlariak, eta berak ordezkatzen duen taldeak sekulako lana egin dute, eta garrantzi handia du euren lorpenak. Izan ere, 35 urtez azpiko ikerlarientzat oso garrantzitsuak dira Taylor sariak.



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

GEP GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

EL PROFESOR DE EPS IVÁN GALLEGO HA SIDO FINALISTA EN LA EDICIÓN DE 2008 DE LA MEDALLA TAYLOR, EL GALARDÓN DE MAYOR PRESTIGIO INSTITUÍDO A NIVEL INTERNACIONAL PARA PREMIAR TRABAJOS DIRIGIDOS POR INVESTIGADORES MENORES DE 35 AÑOS EN EL CAMPO DE LA FABRICACIÓN.

El premio está instituido por la Academia Internacional para la Ingeniería de Producción (CIRP) y han concurrido a la final otros dos candidatos: el japonés K. Katahira y el canadiense A. Azab.

Supone un hito de investigación en el ámbito de la fabricación, puesto que nunca antes un investigador a nivel nacional había optado a este premio. Iván Gallego ha representado un consorcio de investigación formado por MU y el Centro Tecnológico Ideko, en colaboración con las empresas Estarta Rectificadora y Abrasivos Manhattan, y los resultados alcanzados suponen la culminación de seis años de investigación , en el que han participado más de 20 personas entre investigadores, doctorandos y becarios de proyecto fin de carrera.

Iván Gallego ha representado a un consorcio de investigación formado por Mondragon Unibertsitatea y el Centro Tecnológico Ideko

El trabajo realizado por el grupo de Iván Gallego y David Barrenetxea, codirector del proyecto, ha sentado las bases para suprimir las principales inestabilidades del rectificado sin centros, proceso de fabricación que se utiliza en la producción de grandes series de componentes por su elevada productividad. Asimismo, se han desarrollado nuevas técnicas para conseguir predecir el ciclo óptimo de rectificado, que permite alcanzar la precisión requerida en un menor tiempo y sin dañar la pieza, lo que redunda en un aumento de la productividad del proceso. Todos estos avances se están incorporando en una nueva herramienta industrial inteligente de puesta a punto del proceso, denominada Estarta SUA (Set Up Assistant), que proporciona, mediante un sencillo proceso de guiado, todos los parámetros necesarios para que el proceso se desarrolle libre de inestabilidades y en el menor tiempo posible.

Los Departamentos de Industria y Educación del Gobierno Vasco y el Ministerio de Ciencia e Innovación, han financiado el proyecto. Cabe señalar, que la candidatura de Iván Gallego fue apoyada por investigadores de gran prestigio internacional. Finalmente, el galardón fue otorgado al candidato japonés, K. Katahira.

# MONDRAGON TEAM FACTORY

**JARRERA IKERTZAILEA BULTZATUZ**
Mondragon Team Factory sortu da jarrera ikertzailea bultzatzeko Mondragon Unibertsitatearen Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean.

MONDRAGON TEAM FACTORY (MTF) ES UNA UNIDAD DE EMPRENDIZAJE CREADA DENTRO DE LA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES DE MU, CON LA MISIÓN DE FOMENTAR EL LIDERAZGO EMPRENDEDOR.

La iniciativa parte de la experiencia de Team Academy, elegido en 2007 como centro de excelencia en emprendizaje de Finlandia. Peter Senge (profesor del MIT) afirma que Team Academy cuenta con las herramientas más innovadoras dentro del mundo universitario.

Mondragon Team Factory integra tambien otras experiencias de emprendizaje líderes a nivel internacional como son: Stanford (USA), IIMA (India), INSEAD (Francia) y Harvard (USA).

Hoy en día, MTF cuenta con un equipo de personas dentro de la facultad, en el que participan profesores y alumnos y personas vinculadas a Team Academy. El equipo, comenzó a trabajar en los primeros meses de 2008, y cuatro de ellos participan en la segunda edición del Team Mastery, un máster especializado en formación de *coaches* para la implantación de equipos autogestionados de alto rendimiento.

"Fomentar el liderazgo empresarial, objetivo principal de la nueva unidad de emprendizaje creada en Oñati"

El equipo está conformado por: Sari Veripää, Miren Intxaurraga, Sain López, Aitor Bediaga, Jose Mari Luzarraga y Aitor Lizartza.

Mondragon Team Factory cuenta con diversos retos e iniciativas para los próximos meses: el programa de Erasmus internacional en liderazgo emprendedor, en el cual ya participa un alumno de la Facultad de Ciencias Empresariales; dos proyectos pilotos con alumnos de bachillerato en ikastolas y alumnos de empresariales en los Campus de Oñate y de Irún; o los *workshops* con empresas como Gureak, Caja Laboral o Maier, para desarrollar la actitud innovadora, el intraemprendizaje o el desarrollo de nuevos negocios dentro de la empresa; y la organización de una fiesta de emprendizaje en diciembre, en la que participarán jóvenes de la zona norte del estado español.

EZF ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA



# LAN HANDIAK EGIN DIRA HUHEZIN, IKASLE GEHIAGO HARTZEKO

**OBRAS EN LA FACULTAD DE HUHEZI**
Entre otros trabajos de acondicionamiento, se han instalado varias aulas prefabricadas para poder dar servicio a, aproximádamente, 120 alumnos más.



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

UDA HONETAN LAN ASKO ETA HANDIAK EGIN DIRA HUHEZI FAKULTATEAN, ESKORIATZAN, IKASTURTE HONETAN ARAZORIK IZAN EZ DADIN DATOZEN IKASLE GUZTIAK HARTZEKO. UZTAILEAN HASI ETA IRAILA BITARTEAN, BEHARGINAK JO ETA KE ARITU DIRA LANEAN.

Huhezi fakulateak bi eraikin ditu: Dorleta eraikina, non 1976an sortu baitzen Irakasle Eskola, eta eraikin nagusia, XVII. mendean sortua, klaustro eta guzti. Bietan egin dira lanak.

> Azken urte hauetan Huhezi etengabe hazi da, gero eta ikasle gehiago etorri baitira Irakasle Ikasketak egitera

Eraikin nagusian, hiru ikasgela handi egin dira, eta gela txiki bat, aldibereko itzulpenak egiteko. Bestetik, kapera moldatzen ari dira, aurrerantzean berau izango da-eta fakultateko areto nagusia. Pantaila bidez, gainera, lotuta egongo da orain arteko areto nagusiarekin, jende gehiagok parte har dezan ekitaldi jendetsuetan. Azkenik, kendu egin da eraikin nagusiko ordenagailu gela. Aurrerantzean, irakasle gela izango da, ordukako irakasleentzat.

Dorleta eraikinean ordenagailu gela bat sortu da, hirugarrena, 42 ordenagailurekin. Horrezaz gain, hainbat mahai jarri dira korridoreetan, prestatuak ikasleek bertan lan egin dezaten beren ordenagailu eramangarriekin.

Xehetasunik deigarriena, baina, gela aurrefabrikatuak dira. Dorleta eraikinaren aurrealdean ipini dira, liburutegiaren parean, eta erabiliko dira beste ikasgela guztiak beteta daudenean. Hiru modulu ipini dira guztira: bi txikiak, hogeina ikasle hartzeko modukoak; hirugarrena, berriz, handia da, 100 lagun hartzeko prestatua, baina berau bitan banatu ahal izango da, aukera emango du-eta 50nako bi ikasgela sortzeko.

Azken urte hauetan Huhezi etengabe hazi da, gero eta ikasle gehiago etorri baitira Irakasle Ikasketak egitera. Ikasle horiek guztiak hartzeko handitu zen aparkalekua joan den ikasturtean, eta egin dira lanak uda honetan.

## BOST IKASLE ETORRI DIRA AURTEN ERASMUS PROGRAMAN HUHEZIRA

Erasmus ikasleak iritsi dira Huhezi fakultatera. Bost etorri dira aurten, Erasmus programaren bigarren aldian, iaz baino lau gutxiago. Hiruk Irakasle ikasketak egingo dituzte, eta bik Ikus-entzunezko komunikaziokoak.

Bi, Sara eta Louise, Danimarkatik etorri dira, Kopenhageneko Unibertsitatetik. Beste bi, Saskia eta Tieme, Herberehetik, Windesheim-eko Unibertsitatetik. Eta bosgarrena, Chiara, Belgikatik, KHL Unibertsitatetik. Bost ikasleek sei hilabete egingo dituzte Huhezin. Oso ondo moldatu dira Mondragon Unibertsitatera eta Debagoienera.

## GLOSATEGIA KOMUNIKAZIO TERMINOETARAKO

Informazioa eta Komunikazioa Saileko kideek glosategi bat sortu dute Interneten. Diseinua, Ikus-entzunezkoak, Informatika, Internet, Kazetaritza, Komunikazio korporatiboa eta Tipografia atalak landuko ditu. *http://komunikazioglosategia.pbwiki.com/*

## GENTZANE ALDEKOA

# "GURE IKASLE GEHIENEK EGIN BEHARKO LUKETE EGONALDI BAT ATZERRIAN"

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUKOA DA GENTZANE ALDEKOA GOI ESKOLA POLUITEKNIKOAN. BERTAN NAZIOARTEKO EGITASMOAK KOORDINATZEN DIHARDU.

Goi Eskola Politeknikoaren hezkuntza-ereduak ikasleak nazioartean ikastera bultzatzen ditu. Horren garrantziaz jabetuta, Nazioarteko Harremanetarako Departamentua, aldaketa prozesuan murgilduta dago, zerbitzua hobetzeko asmoz.

**Azken urtean zerbitzua hobetzeko aldaketak egin dituzue zuen departamentuan, ezta?**

Gure asmoa da gero eta aukera gehiago eskaintzea Goi Eskola Politeknikoko ikasleei atzerrian ikasketak egiteko, eta aldi berean, gure unibertsitatea ondo kokatu nahi dugu nazioarteko panoraman. Erasmus ikasleak erakarri nahi ditugu gurera, eta gure ikasleak atzerrira bidali nahi ditugu. Guztiok jabetu behar dugu, oso garrantzitsua dela atzerriko egonaldia, bai hemengoentzat eta baita gurera datozenentzat ere. Horregatik, ezinbestekoa da aldaketak egitea.

**Gainera, elkarlan hitzarmenak sinatu dituzue Europako hainbat unibertsitaterekin.**

Bai, gaur egun Mondragon Unibertsitateak mugikortasun programak eta hitzarmenak garatu eta sinatu ditu Frantzia, Italia, Alemania, Belgika, Danimarka, Suitza, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Finlandia, Irlanda, Britania Handia eta Norvegiako zenbait unibertsitaterekin. Gainera, epe laburrean beste zenbait sinatu gura ditugu Kanada, Mexiko eta beste hainbat herrialdetako erakundeekin. Guztira Europako 28 unibertsitaterekin ditugu mugikortasun programak horietatik bederatzi frantziakoak. Hitzarmen horiei esker, gure ikasleek aukera gehiago izango dute atzerrira joateko, eta guk ere ikasle gehiago erakartzeko bidea izango dugu.

*Iaz Polonia, Eslovakia, Italia, India, Finlandia, Suedia, Mexiko eta Frantziako 30 ikasle izan genituen Mondragon Unibertsitatean. Gehienek sei hilabeteko egonaldiak egin zituzten.*

**Mugikortasun programa horietan zenbat ikaslek esku hartu dute?**

Iazko ikasturtean 30 ikasle inguru etorri ziren Mondragon Unibertsitatera ikasketak egitera. Gehienek sei hilabeteko egonaldiak egin zituzten, baina egonaldi luzeagoak egin zituztenak ere izan genituen. Aurten, lehenengo sei hilabeteetan hamabost ikasle inguru izango ditugu, eta bigarren sei hilabeterako orain hasi gara lanean jendea erakartzeko. Era berean, gure ikasleak ere atzerrira joan dira dagoeneko. Guztira, Mondragon Unibertsitateko 140 ikasle abiatu dira Erasmus programarekin Europako unibertsitateetara. Uste dut gure ikasle gehienek egin beharko luketela egonaldi bat atzerrian. Hain justu ere, gure asmoa da MUko ikasleen %80 -%90 mugikortasun programetan murgiltzea.

**Hezkuntzaren ikuspegitik, zer eskaintzen dio Mondragon Unibertsitateko ikasleari atzerrian ikasketak egiteak?**

Esperientzia garrantzitsua da ikasleentzat, eta, oro har, denak pozik bueltatzen dira egonaldietatik. Esperientzia oso positiboa izaten da. Erasmus eskaintza ikasketen amaieran edukitzen dute ikasleek, eta ikuspegi horretatik ere ona da kanpora joatea. Izan ere, hemengo ikasketa erritmoa hautsi egiten dute. Ikasleek neurrira egindako programak aukera ditzakete, askotarikoak, gainera. Horri guztiari gaineratu behar diogu atzerriko hizkuntzaren ezagutza hobetzeko aukera dutela.

**Eta atzerriko ikasle bati zer eskaintzen dio Mondragon Unibertsitateak?**

Eskaintza horretan berriak gara, baina, gero eta aukera gehiago eskaintzen diegu atzerriko ikasleei. Erabat pertsonalizatua eta gertukoa da gure unibertsitatea. Irakasleak eta gure departamentuko kideak haien beharretara egokitzen dira. Gure helburua da ikasleak gustura egotea gure artean. Hezkuntzaren ikuspegitik ere gure eskaintza berezia da. Arlo kooperatiboa, lan talde murritzetan ikasteko aukera eta proiektuak enpresetan egiteko aukera eskaintzen diegu.




ARGAZKIA: J. ARANZABAL

## NAZIOARTEKO IKASKETA PROGRAMAK

- **Erasmus-ikasketak:** ikasleek atzerrian sei hilabeteko egonaldia egiteko aukera dute eurek aukeratzen duten unibertsitatean. Urtebeteko egonaldia eta proiektua ere egin dezakete.
- **Erasmus-praktikak:** proiektua atzerriko enpresa batean egiteko aukera eskaintzen du programa honek.
- **Diploma bikoitza:** ikasleak urte eta erdi atzerrian egin dezake - MUkoek orain arte beti Frantzian- eta bi titulazio eskuratzeko aukera dute: Jatorrizkoarena eta atzerriko unibertsitatearena.

**GENTZANE ALDEKOA**
Nazioarteko Harremanetarako departamentuko kideak, estrategia berriak planifikatzen.

- **Goier programa:** Egitasmo honek bigarren zikloa edo masterrak atzerrian egiteko aukera eskaintzen du.
- **Doktoretzako programak:** Ikasleek hirutik sei hilabeteko egonaldiak egin ditzakete atzerriko unibertsitateetan edo ikerketa zentroetan.




## MUNDUKIDE

# KOOPERAZIO KOOPERATIBOA HERRIALDE POBRETUETAN

1991TIK MUNDUKIDE FUNDAZIOAK INTERKOOPERAZIO SISTEMA BAT ERAIKITZEN DIHARDU KOOPERATIBEN MUGIMENDUKO HAINBAT ERAGILEREKIN. AZKEN HELBURUA DA, KOOPERAZIO EREDU PROPIOA ERAIKITZEA HERRIALDE PROBRETUEI LAGUNTZEKO, AGENTE DESBERDINAK INTEGRATUZ GURE IZAERA KOOPERATIBOAN.

Herrialde pobretuei laguntza emateko, Mundukidek, Lanki institutuak, unibertsitateak, enpresa eta entitate kooperatiboek eta boluntario kooperatiboek beraien esperientzia eta lana partekatzen dihardute.

**PRAKTIKAK** Unibertsitatearekin elkarlanean, aurten egindako hiru esperientzia konkretu ezagutarazi nahi ditu Mundukidek lerro hauetan:

**KUNBA** Enpresa kooperatiboaren gestio eta antolakuntzaren inguruan, Kuban bultzatu duen “Prestakuntza, laguntza tekniko eta ikerkuntzako programa”, HUHEZIko Informazio eta Komunikazioko Maria Gaztelupe eta Mikel Beaskoa ikasleek bost asteko egonaldia egin dute Kuban. Dokumental bat egingo dute Mundukidek Kuban duen programari buruz. Hori dela eta, irudiak eta elkarrizketak grabatu dituzte. Dokumentala prest izango da urte bukaerarako.

**MEXIKO** 2007-2008 ikasturtean, Mexikoko Alternativas y Procesos de Participación elkartearekin ere lankidetza proiektu bat garatu da.

Alde batetik, Goi Eskola Politeknikoko Antolakuntza Ingeniaritzako ikasleak diren, Aintzane Fernandez de Arroyabe eta Joseba Larrea, Mexikon egon dira 10 hilabetez ikasketa bukaerako proiektua egiten. Amarantoaren zertifikazio organikoaren prozesuaren hobekuntzan eta ingurumenean duen eragina neurtuko duten indikadore koadroak garatu dituzte proiektuan.

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAN** ALTERNATIVASeko zuzendari komertziala den Mª Carmen Martinezek, amarantoan oinarritutako elikagaien merkatu azterketa eta marketin plana burutu du Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean. Azterketa, Juan Jesus Valle irakaslearen tutoritzapean egin da, eta Nora Unzueta ikaslearen laguntza jaso du. Azterketa horiek, ikasketa amaierako proiektuarekin osatuz. Informazio gehiago, Webgune hauetan:

*www.mundukide.org*
*www.quali.com.mx*
*www.alternativas.org.mx.*

**ESKER ONA**
Mexikon eta Kuban asko eskertu dute lau gazte hauek proiektuetarako egindako aportazioa.

## GARABIDE

# HEGO AMERIKAKO INDIGENEN ORDEZKARIAK EUSKAL HERRIAN, GARABIDE ELKARTEAK GONBIDATUTA

HEGO AMERIKAKO HAINBAT HERRI INDIGENATAKO ORDEZKARIAK EUSKAL HERRIAN DAUDE URRIAREN 10EAN ETORRITA. GARABIDE KULTUR ELKARTEAK ANTOLATURIKO HIZKUNTZA ETA HERRIEN ARTEKO BIGARREN TRUKE PROGRAMAN PARTE HARTZEN ARI DIRA.

Lau astez, gure artean izango ditugu Guatemalako maien ordezkariak, Ekuadorko kitxuak, Boliviako kechwa, kayawalla eta aymarak, Txileko Wallmapu herriko maputxeak, Paraguatik datorren guaranien ordezkaria eta Marokotik gerturatu den amazigh herriaren ordezkaria.

Garabide Elkarteak antolatzen duen programa honen helburua da euskara eta euskal kulturaren garapenaren esperientziak erakustea. Hain zuzen ere, garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuetako ordezkariei, gure hizkuntzaren eta kulturaren eboluzioaren berri ematea da asmoa.

Eurek ere izan dezaten non begiratu eta ikasi euren identitatea mantentzeko eta hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiteko. Truke programaren bitartez, ordea, herri indigenetako ordezkariek ekarriko diguten esperientzia ezagutu nahi du Garabidek. Alegia, beren errealitatearen berri izan nahi du.

Lankidetzan oinarritutako hartu-emanak bultzatuko ditu Huhezin sortu den kultura elkarteak, bereziak diren eredu gizakoiagoetara bideratuko gaituen elkartrukatzean ikasiz eta irakatsiz.

### TRUKE PROGRAMA, URRIAREN 13TIK AURRERA

Urriaren 13an hasi eta azaroaren 7a bitartean, oso programa zabala antolatu du Garabidek. Formazio saioak izango dira. Gainera, bisitak egingo dituzte hainbat elkarte, erakunde, Udal, eskola eta komunikabideetara. Era brerean, hitzaldiak, mahai inguruak eta elkarrizketak izango dituzte euskalgintzan lan handia egin duten pertsonekin.

Halaber, Euskal Herriaren ezagutza izan dezaten, jai giroko ekitaldi andana ere antolatu dira. Programan parte hartuko duten erakunde eta pertsonen eta herri indigenen arteko zubi lana baino ez du egin Garabide Elkarteak.

Ekitaldi gehienak Mondragon Unibertsitatean egingo dira, Eskoriatzako Huhezi fakultatean, baina, lau aste horietan hogeitaka bisita aurreikusi dituzte, tartean Garabideri laguntza ematen dioten Oñatira, Azkoitira, Beasainera eta Eskoriatzako udaletara.

### ASKOTARIKO ESKAINTZA

Truke programan parte hartzen ari direnek aukera dute Euskaltzaindia, AEK eta Elhuyar ezagutzeko.

TRUKE PROGRAMA
Programaren helburua da euskara eta euskal kulturaren garapenaren esperientziak erakustea eta trukatzea.



BOLLYWOOD

# HUHEZIKO BI IKASLE BOLLYWOODEN IZAN DIRA, KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA PRESTATZEN

NEREA RUIZ DE AZUA ETA NAROA ZALAKAIN HUHEZIKO IKASLEAK DIRA. BOLLYWOOD ZINE ESTUDIOEN GAINEKO DOKUMENTAL BAT EGINGO DUTE KARRERA AMAIERAKO PROIEKTU BEZALA. INDIAKO ZINEGINTZAKO MEKA DA BOLLYWOOD .



BOLLYWOOD
Nerea Ruiz de Azua eta Naroa Zalakain Bolywoodeko artista batekin.

Galdetzerakoan zergatik aukeratu zuten gai hori, ez dute zalantzarik: "Fakultateak eskaintzen zizkigun aukeretatik kanpo, bilatu nahi izan genuen bat, gure gustukoa, nahiz eta fakultateak berak eskaini ez". Joan aurretik, badaezpada, harremanetan jarri ziren hango zine eskola batekin, ikusteko haiengandik laguntzarik jaso zezaketen. Horrela bada, dena prest zutenean, ekainaren bukaeran, Indiara egin zuten, eta hantxe igaro dute uztaila: hiru aste Mumbai hirian, eta beste bat Indiako Iparraldean bidaiatzen, turismo egiten.

Bollywoodeko zine estudioetan ezin izan ziren sartu filmatzera, baina estra moduan egin zuten lan film batean, lan interesgarria hango giroaren berri izateko. Horrezaz gain, film baten estreinaldian izan ziren, hango zine eskolak gonbidatuta, eta han bai hartu zituzten irudiak eta egin zituzten elkarrizketak. Hango irudiekin eta Mumbain barrena hartutakoekin (hainbat zinetoki bisitatu zituzten, eta zine eskola bat), hortxe dute material gordina dokumentala egiteko. Bollywood, eta Mumbai oro har, kaos handi bat iruditu zitzaien. Hala ere, pozik itzuli dira etxera, esperientzia aberatsa bizi izan dutelako.

Donostiako Zinemalditik bueltan -Nereak eta Naroak zinea dute maite-, grabatutako guztia ikusten hasi dira, eta bueltak ematen Mumbain bertan zirriborratutako gidoiari. Dena ondo badoa, datorren otsailean aurkeztuko dute-eta karrera amaierako proiektua, Huhezin bertan.

BRISTOL

# HAMAR HILABETEKO ESPERIENTZIA ABERASGARRIA BRISTOLEN

AITZIBER VICENS-EK HAMAR HILABETEKO EGONALDIA EGIN DU BRISTOLEN,
BRITANIA HANDIAN.
MASTER BAT EGIN DU BERTAN.

Karreran sartu nintzenetik, betidanik izan dut buruan azken urtea kanpoan egitea. Beraz, informazioa eskatu eta bete beharreko baldintzak bete ondoren, hasi zen Bristol-eko abentura. 500.000 bat biztanleko hiria da Bristol, kostaldean dago, eta ikasle asko biltzen dira ikasturtean zehar, bi unibertsitate handi baiditu. Oso giro gaztea ikus daiteke, parrandarako aukera ezberdinak eta ikuskizun ugari antzokietan. Hasieran, harritu ninduen ikusteak herrialde askotako jendea elkarrekin atzerriko hizkuntza baten mintzatzen. Ikasketei dagokienez, aldez aurretik banekien ikasturtea Euskal Herrian baino zailagoa izango zela. Batetik, hizkuntza, eta bestetik ingurune berriak eragin handia dute egunerokotan.

Hala ere, hilabete gutxiren buruan Bristolgo hiritar sentitzera iritsi nintzen, eta guztia errazagoa bilakatu zitzaidan. Era berean, esan daiteke hezkuntza sistema ezberdina dela. Klase ordu gutxi eta bakarkako eta talde lan ugari egiten dituzte urtean barrena, beraz, nire ustez gainditzea errazagoa da, baina kalifikazio ona ateratzea, zailagoa.

Esperientzia pertsonalari dagokionez, azpimarratuko nituzke kultura aniztasuna eta egindako lagun guztiak. Batez ere, afrikarrak eta asiarrak ezagutu nituen. Europarrekin ez dut tratu handirik izan, espainiarrekin kenduta. Esperientzia oso aberasgarria izan da, bai ikuspegi pertsonalean, eta baita profesionalean ere. Berriro joateko aukera izango banu, beste leku batera joango nintzateke, zerbait ezberdina probatzera.

## TESIAK

### GEP
## CONTROL DE RUIDOS

El objetivo fundamental de esta tesis es el diseño y la validación experimental de un sistema de control activo acústico estructural para reducir el ruido radiado por los modos de bajo orden en estructuras de alta rigidez, con la mayor parte del contorno en condiciones libres, empleando actuadores piezoeléctricos. Todo ello, abordado de acuerdo a tres tareas importantes.



**AITZIBER AIZPURUA**
Control activo acústico estructural en estructuras con alta rigidez, mediante materiales inteligentes.

### GEP
## GENERACIÓN DE ENERGÍA ELÉCTRICA

La tesis se enmarca dentro de la aplicación de generación de energía eléctrica, por medio de aeroturbinas eólicas de velocidad variable. Analiza diferentes estrategias de control para la máquina eléctrica más comúnmente utilizada en éste ámbito, la máquina de inducción doblemente alimentada por el rotor o DFM, tal y como se la conoce entre los especialistas del sector.



**GONZALO ABAD**
Técnicas predictivas directas de control de la máquina de inducción doblemente alimentada, para aplicaciones en energía eólica.

### GEP
## SOFTWARE PRODUKTUEN EBALUAZIOA

Software produktu lerroen ingeniaritzan oso garrantzitsua da kalitatea garaiz egiaztatzea: kalitate atributuak bete egingo direla ziurtatzea. Alabaina, ebaluatzeko orduan, irizpide funtzionalak soilik hartu ohi dira kontuan. Arazo horri aurre egiteko CaLiPro metodoa garatu dugu. Metodo horrek kalitate atributuak eta beraien aldakortasuna ebaluatu ahal izango da software produktu lerroetan.



**LEIRE ETXEBERRIA**
Evaluación de atributos de calidad en lineas de productos software de forma efectiva de costes.

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN TESI IRAKURKETA**
Muniversitas aldizkariaren zenbaki honetan hiru tesi irakurketaren berri jaso dugu. Hirurak ere, Goi Eskola Politeknikoan irakurri dituzte.



## KIROLA ETA OSASUNA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

# MARKAK HOBETUZ!

JAKIN BADAKIGU KIROL ZERBITZUAK IRTEERA, IKASTARO ETA TXAPELKETAK ANTOLATZEN DITUELA. HORREZ GAIN, BESTERIK ESKAINTZEN AL DU MU-KO KIROL ZERBITZUAK? GURE INGURUAN OSO ERROTUAK DAUDE LASTERKETA HERRIKOIAK, ETA GUZTIEN ARTEAN BEHOBIA-DONOSTIA DA FAMATUENA.

Mondragon Unibertsitateko ikasle eta langile askok Behobia-Donostia lasterketa ezagunean parte hartzeko ohitura dute; horien artean badira entrenamenduen egokitasunari buruz galderak egiten dituztenak, eta zalantza ugari dituztenak. Horietako bat da P.U. ikaslea. Behobia-Donostia bukatzea zuen helburu P.U.k, eta prestaketa fasea antolatzen lagundu genion, kezkak uxatuz.

Hasteko, kirol mediku azterketa egin genion (%30eko beherapena izanik, nahiko eskuragarri izaten dute ikasleek azterketa), lasterketa era egokian bete ahal zuela ziurtatzeko, eta lan saioak prestatzeko baliogarriak zaizkigun datuak eskuratzeko.

Azterketaren emaitzak jaso genituenean, P.U.rekin elkartu ginen; helburuak, lan saio egunak, pultsometroaren erabilera, denborak... adosteko egin genuen bilera.

Gauzak horrela, P.U.k baliabide eta aholkuak eskuratu zituen eta murgildu zen prestaketa fasean bete betean. Noizean behin, Kirol Zerbitzura gerturatzen zen, bere egoeraren berri emateko eta entrenamendu saioak egokitzeko. Egun handia iritsita, P.U.k lasterketa ondoeta gozatuz osatu zuen; aurrekoetan baino erosoago eta zertxobait azkarrago.

P.U.k bezalaxe, zuek ere zabalik daukazue Kirol Zerbitzuko bidea. Zuen marka hobetu nahi izanez gero, lasterketa gustura egin nahi baduzue, edo zuen helburua beste edozein bada ere, laguntzeko prest gaituzue. Kirola egitea ona da eta mediku azterketek laguntzen dute kirol hori era kontrolatuan eta ondo egiten.

**ACTIVIDAD FÍSICA CONTROLADA**
Realizar deporte de forma saludable y controlada. Los servicios deportivos de Mondragon Unibertsitatea, ofrecen un servicio médico para todos aquellos que quieran participar en pruebas deportivas.



JOANAK

# NAZIOARTERATZEA GORANTZ



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

**ERASMUS** HUHEZIra etorri diren Eramus programako ikasleak.

**TXILE** Bi aste igaro ditu Mariam Bilbatuak Txilen, formazioa ematen hango unibertsitate irakasle talde bati.
**ATLANTA** Txema Egañak lau egun egin zituen Atlantan, AEBetan, ETEN elkartearen urteroko kongresuan, Huhezi kide baita elkarte horretan.
**ALEMANIA** Irailaren 14tik 18ra, Pili Sagasta, Agurtzane Bikuña eta Mariam Bilbatua Alemanian izan ziren, Wismar hirian, eta han ponentzia bat aurkeztu zuten, kongresu batean.
**ZARAGOZA** Irailaren 17tik 20ra bitartean, Nerea Alzola, Monika Madinabeitia eta Ane Urizar Zaragozan izan ziren, kongresu batean. "Irakaskuntza, hiritartasuna eta bizikidetza" izan zuten aztergai.
**BOLIVIA** Irailaren 28tik urriaren 6ra, Jon Sarasua eta Urko Kolomo Bolivian izan dira. Hitz egin dute hango Hezkuntza Ministerioko ordezkariekin.
**IRLANDA** Eunate Elio, University Collegue Cork-en egon da. Centre for Cooperative Studies Zentroan. Sei astez, tesia lantzen. Emakumeek kooperatibetan duten partehartzea aztertzea da tesiaren helburua.
**TXILE** Salamanca udalerrian, Los Pelambres fundazioan egon dira Enpresa Zientzien Fakultateko Luxio Ugarte, Jose Luis Abaunz eta Iosu Lizarralde ekoizpen sustapenaren arloan proiektu bati hasiera ematen eta hitzarmena sinatzen.
**POLONIA** Miguel Angel Rodriguez, Profesor del departamento de Electrónica visita la Universidad Tecnológica de Warsovia bajo el programa Movilidad de Personal Docente para Impartir. Del 4 al 9 de junio.
**FRANCIA** Profesores del departamento de Mecánica visitan la Ecole Centrale de Nantes. Con esta escuela se ha colaborado en los últimos años, y el objetivo de la visita consiste en establecer nuevos ámbitos de colaboración.
**GRAN BRETAÑA** Duli Vélez, miembro de la biblioteca de GEP, visita la Biblioteca de la Universidad de Sheffield, bajo el programa de Movilidad de Personal Administrativo de Erasmus.
**DINAMARCA** Profesores y coordinador académico de Goi Eskola Politeknikoa participan en la 36th Annual Conference of SEFI "Quality Assessment, Employability and Innovation" celebrada en Aalborg. En esta conferencia se trataron diferentes temas sobre nuevas metodologías de aprendizaje.
**BELGICA** Goi Eskola Politeknikoa participa en la conferencia anual, European Association for International Education, celebrada en Antwerp, Bélgica. En esta conferencia, celebrada del 10 al 13 de septiembre, participaron alrededor de 3.000 personas de 2.500 universidades.

ETORRIAK

**MEXICO** Visitó GEP una delegación de 17 personas de Coop Desarrollo, Cooperativas de Ahorro y Préstamo de México, al objeto de conocer la experiencia cooperativa de Mondragon. La visita se realizó el 12 de junio.
**ARGENTINA** El 3 de julio, visitó GEP una delegación de 9 personas de la Dirección de Cooperativas de Argentina, al objeto de conocer la experiencia cooperativa de Mondragon.
**FRANCIA** El 23 de julio, visitó Goi Eskola Politeknikoa el Prof. M. El Ganaoui, responsable del departamento de física de la Facultad de Ciencias y Técnicas de la Universidad de Limoges, Francia. El objetivo de esta visita consistió en visitar el laboratorio de Mecánica de Fluídos y establecer un mecanismo de colaboración entre los dos equipos, sobre todo, en proyectos Espano-Francófonos y Euro-Mediterráneos.
**BRASIL** El 10 de septiembre, visita GEP una delegación de 26 personas de SESCOOP, Cooperativas de Crédito de Sao Paulo. La visita se enmarca en el seminario sobre cooperativismo que están realizando en Otalora.
**COLOMBIA** Visita GEP una delegación de 15 personas de Conalgodon, Cooperativas Agrarias de Colombia. La visita se enmarcó en el seminario sobre cooperativismo que se está realizando en Otalora. 16 septiembre.
**ERASMUS IKASLEAK** GEP organiza la primera reunión para dar la bienvenida a todos los estudiantes internacionales de las tres facultades. El objetivo de la misma consiste en que todos los alumnos se conozcan entre sí, y realicen actividades conjuntas a lo largo de este curso académico. Estos alumnos realizarán estancias de diferentes periodos en MU. Algunos cursarán un semestre y otros un curso completo, o incluso dos. Entre las diferentes actividades asistirán a un curso de cultura vasca y a clases de español. Los lugares de procedencia son tan diversos como: México, Brasil, Bélgica, Dinamarca, Rusia, Eslovaquia, Francia e Italia.

## URRIA

■ **MASTER OFICIAL EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS MBA**
**•MENCIÓN DIRECCIÓN GENERAL**
**•MENCIÓN GESTIÓN Y DIRECCIÓN DE ENTIDADES DEPORTIVAS**
**•MENCIÓN FINANZAS**
**•MENCIÓN LOGÍSTICA Y TRANSPORTE**
**MENCIÓN MARKETING**
Más información:
*postgrado@eteo.mondragon.edu*
*http://www.mondragon.edu/fce/master-y-posgrados/master-y-experto-1/master-y-experto*

■ **MASTER EN BANCA Y BOLSA MBB**
*postgrado@eteo.mondragon.edu*
*http://www.mondragon.edu/fce/master-y-posgrados/master-y-experto-1/master-y-experto*

■ **CURSO EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL**
De octubre a junio, en Arrasate. Más información en *www.mondragon.edu/logistica-integral*

■ **GEP, BILERAK GRADUKO IKASLE BERRIEN GURASOEKIN**
Urriaren 30ean, 18:45ean, Arrasaten.

## AZAROA

■ **GEP, BILERAK GRADUKO IKASLE BERRIEN GURASOEKIN**
Azaroaren 4ean, 18:45ean, Ordizian.

■ **DIPLOMA BANAKETA IKO ETA HUEN KARRERETAKO LIZENTZIADUNEI**
HUHEZIko fakultatean, Eskoriatzan, azaroaren 7an.

■ **SEMANA DE LA CIENCIA EN GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**
Se celebrará entre el 10 y el 15 de noviembre.

■ **DIPLOMA BANAKETA HEZKUNTZAKO IKASLEEI**
Eskoriatzan, azaroaren 14an.

AGENDA

## URTARRILA

■ **MASTER OFICIAL EN GESTIÓN DE EMPRESAS COOPERATIVAS**
*postgrado@eteo.mondragon.edu*
*http://www.mondragon.edu/fce/master-y-posgrados/master-y-experto-1/master-y-experto*

■ **MASTER EN DIRECCIÓN DE PROYECTOS EMPRESARIALES**
*postgrado@eteo.mondragon.edu*
*http://www.mondragon.edu/fce/master-y-posgrados/master-y-experto-1/master-y-experto*

■ **EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA ADITU TITULUA HASIKO DA**
Eskoriatzan, urtarrilaren 7an.

■ **XIX MÁSTER EN DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN**
De enero a diciembre de 2009 en Arrasate.
Más información en *www.mondragon.edu/mdp*

■ **METCA - MÁSTER DE ESPECIALIZACIÓN TÉCNICA EN COMPETICIÓN AUTOMOVILÍSTICA**
De enero a noviembre de 2009 en Azkoitia. Más información en *www.mondragon.edu/metca*

## OTSAILA

■ **CURSO EXPERTO EN CONFIGURACIÓN DE REDES CISCO (CCNA) SEMIPRESENCIAL**
De febrero a noviembre de 2009 en Arrasate.
Más información en *www.mondragon.edu/ccna*

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**
• Otsailaren 7an, 11:00etan, Arrasaten (Gradua)
• Otsailaren 26an, 17:30etan, Ordizian (Gradua)
• Otsailaren 12an, 18:00etan, Oñatin
• Otsailaren 19an, 18:00etan, Eskoriatzan
• Otsailaren 21ean, 10:00etatik 13:00etara, Bidasoan

## MARTXOA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**
• Martxoaren 12an, 17:30etan, Arrasaten (Gradua)
• Martxoaren 12an, 18:00etan, Eskoriatzan
• Martxoaren 28an, 11:00etan, Ordizian (Gradua)

## APIRILA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**
• Apirilaren 2an, 18:00etan, Bidasoan
• Apirilaren 4an, 10:00etatik 13:00etara, Oñatin
• Apirilaren 23an, 18:00etan, Eskoriatzan
• Apirilaren 25ean, 11:00etan, Arrasaten (Gradua)

## MAIATZA

■ **ATE IREKIEN JARDUNALDIAK**
• Maiatzaren 7an, 17:30etan, Arrasaten (Gradua)
• Maiatzaren 7an, 18:00etan, Bidasoan (2. zikloa)
• Maiatzaren 9an, 11:00etan, Eskoriatzan
• Maiatzaren 14an, 18:00etan, Oñatin
• Maiatzaren 21ean, 18:00etan, Bidasoan

# LaGuipuzcoana

**ZERBITZU ERREGULARRA ETA DISKREZIONALA**
***ESKATU AURREKONTUA***

*SERVICIO REGULAR Y DISCRECCIONAL*
*PIDA PRESUPUESTO*

## IBILBIDEA eta ORDUTEGIA

**2008/02/18TIK AURRERAKO ALDAKETAK**
**CAMBIOS A PARTIR DE 18/02/2008**

| AZPEITIA<br>Anbulatorioa<br>Igerilekua | AZKOITIA<br>Max.Eroski<br>Goiko-Kale<br>Gasol. | ELGOIBAR<br>Markina-ra bidean gelditzen den | EIBAR<br>Autopista<br>Gasolindegia | | ARRASATE<br>Eroski (*) | | OÑATI<br>Eteo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06:35 | 06:43 | 07:00 | 07:10 | → | 07:30 | → | 07:45 |
| 12:05 | 12:15 | 12:30 | 12:40 | → | 13:05 | → | 13:15 |
| 14:50 | 14:42 | 14:25 | 14:15 | ← | 13:50 | ← | 13:30 |
| 20:00 | 19:52 | 19:35 | 19:25 | | 19:00 | ← | 18:45 |

| ETXABARRI<br>Metro Geltokia | ZORNOTZA<br>Rotonda Ondoko Geltokia | DURANGO<br>Magdalena | MATIENA<br>Eskolen ondoan | ABADIÑO<br>Ohiko Geltokia<br>Zelaieta | ATXONDO<br>Errepide General. | ELORRIO<br>Goiko Gelto.<br>Beheko Gelto. | ARRASATE<br>Eroski (*) | | OÑATI<br>Eteo | ESKORIATZA<br>Huhezi |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (1) | 06:35 | 06:50 | 06:55 | 06:58 | 07:00 | 07:05 | 07:30 | → | 07:40 | 07:50 |
| 11:45 (2) | 12:00 | 12:15 | 12:20 | 12:25 | 12:30 | 12:35 | 13:05 | → | 13:15 | 13:25 |
| 15:10 (3) | 14:55 | 14:40 | 14:35 | 14:30 | 14:25 | 14:20 | 13:50 | ← | 13:30 | 13:30 |
| 20:20 (3) | 20:05 | 19:50 | 19:45 | 19:40 | 19:35 | 19:30 | 19:00 | ← | 18:45 | 18:30 |

(*)Oharra: Puntu honetan transbordoa egingo da.(Eteo, Eskola-Huhezi)
(1) Ez da egongo zerbitzurik egongo Etxabarritik. Zerbitzu berezia egongo da astelehenero, 6:20etan, San Mames-eko Termibus-en geltokian.
(2) Zerbitzu hau bakarrik astelehenetan emango da
(3) Zerbitzu hau bakarrik ostiraletan emango da



IBAI-ONDO 20 • 20720 AZKOITIA • GIPUZKOA • Tfno.: 943 851159 • Fax: 943 857072
www.laguipuzcoana.net • info@laguipuzcoana.net






Desagertzeko
arriskuan dago
ORDAINDU ZURE EROSKETAK
Gazte-txartelarekin
eta ez izan xomorro xelebrea.
Gazte-txartela.
Edukitzea da normalena.
gazteaukera.euskadi.net
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
"la Caixa"
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA